



Talentua loratu da

Ohiko urtarora itzuli da Udaberriko Bertso Saioa; bertsolariek beste sortzaile batzuekin partekatu dute agertokia / 9

TXINTXARRI

Beharrak ozen berretsi dituzte

Herriko mugimendu feministako kideek prentsaurreko jendetsua egin dute Mirentxun. "Lortu arte ez dugu etsiko" / 2

Erraustegira martxa egingo dute hilaren 14an; Okendo plazatik abiatuko da, goizeko hamaiketan / 4

Tximista Eguna ospatu dute Jalgi kafe antzokian, Trumoi taberna gogora ekartzeko / 5

Ama Guadalupe Extremadura Etxeko kideek sagardo artean agurtu dute apirila / 7

Askotariko dantza estiloetako dantzariak batu dira, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko / 8

Ostadar Boleibola saileko jubenil taldeak Gipuzkoako txapelketako finala jokatu du / 10

Herriko atletak eta korrikalariak bikain lehiatu dira txapelketa zein proba ezberdinetan / 11

2 MÓ 129€

PROGRESIBO

+

ukipen-lenteak doan hilabete baterako

+

premium azterketa bisuala



R.P.S. 9/1/20

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiópticas.com   



Norbanako eta mugimendu feministako kide ugari elkartu ziren apirilaren 30ean, Mirentxun. TXINTXARRI

Berdintasun teknikari baten beharra berresten

Lasarte-Oriako Mugimendu Feministak 2022ko aurrekontuetan "urgentziaz" herrira egokitutako berdintasun plan sendoa osatzeko diru partida jasotzeko eskatu dio udalari, baita erabaki ahalmena izango duen berdintasun mahaia edo kontseilua sortzea ere

Txintxarri

Hainbat norbanako eta mugimendu feministako kide batu ziren apirilaren 30ean Mirentxun egindako prentsaurrekoan. Izar Agirretzek, euskaraz, eta Josune Artolak, gaztelaniaz, idatzi bat irakurri zuten, bertan, beste behin, herriko egoera salatu zuten eta berdintasun teknikari baten

beharra berrestu. "Herri honek berdintasun sail sendo bat behar du bere udal egitura eta egitura horren bermea berdintasun teknikaria da, udaleko lanpostuen zerrendan sortutako lanpostua beteko duen teknikaria. Ez hiru urteko programa urri bat aurrera eramango duen langile bat", nabarmendu zuten feministek, hura eratzeko eta betetzeko epe

muga aipatu programarena dela ere zehaztuz.

Horregatik, oraindik aurkeztu gabe dauden 2022ko aurrekontuetan "herrira egokitutako" eta "parte hartze prozesu zabalaren bitartez osatutako berdintasun plan sendoa" osatzeko diru partida jasotzeko eskatu diote Lasarte-Oriako Udalari, hori baita

kontratutako duten langileak izango duen lanerako markoa. Plan horren egikaritzean zeresana dutela uste dutenez, bigarren eskaera bat ere luzatu diete udal agintariei: berdintasun mahaia edo kontseilua sortzea. Gune horretan batuko lirateke udal ordezkariak, herriko emakume, talde, bestelako eragile eta norbanakoak berdintasun planaren garapenean landu beharreko bideak eta programak adosteko eta herrian genero berdintasuna sustatzeko egin beharreko guztia "aztertu, eztabaidatu eta erabakitzeke".

Plana eta profila, eskas

Aldarrikapen horien berri eman aurretik, Agirretzek eta Artolak, testuinguruaren eta gatazkaren bilakaeraren laburpena egin zuten. Lasarte-Oria da, Hondarribiarekin batera, antzeko ezaugarri demografikoak dituzten udalerrien artean berdintasun teknikaririk ez duen bakarra, nahiz eta legez halako postu bat egokitu. "Horren ondorioz, indarkeria matxista jasaten duten pertsonak egoera are larriagoan daudela jakin dugu, besteak beste, gizarte zerbitzuek ez dutelako nahikoa baliabiderik". Horrez gain, halako profilik ez izateak hutsuneak eragiten ditu udaleko zenbait arlotan, hala nola, hezkuntza sektorean ez da arta ondo bideratzen, hirigintza planetan ez dago genero ikuspegirik, protokolo egokirik ezta berdintasun planik.

Azken hilabeteetan ekintzen bidez kalean presente izan da aldarrria, baina luze daramate udalari berdintasun teknikariaren lanpostua sor dezan eskatzen. 2021eko aurrekontuetan barneratutako zuela esan ziela gogoratu dute feministek, baina

udalak "ez zuen hitza bete". Mobilizazioei ekin zieten orduan, herritargoaren sostengua badutela erakutsiz, eta udal agintariei "xantaiapean" onartutako berdintasun plana abian jartzeko pertsona bat kontratatzea erabaki du. Hala ere, ez da eskatutakoa eta ohararazi dute ez direla horrekin konformatuko, borrokan jarraituko dutela egiturazko lanpostua sortu eta bete arte. "Adi egongo gara eta hori lortu arte ez dugu etsiko, mugitzen garenean lortzen baitugu udala mugitzea".

Lanpostuaren profila harago, garatu beharreko planari berari erreparatu zioten jarraian. Beharrezko baliabiderik, diagnostiko egokirik eta parte hartze prozesurik gabe egin dela salatu zuten; eta udal ordezkariekin egindako bilera batean "ez zela ez nahikoa ezta egokia ere" onartu zieten. "Beraz, ez da egia txostena prestatzeko prozesuan 'parte hartu nahi izan zuten eragile guztiek' egin zituztela ekarpenak" eta gehitu zuten udaleko berdintasun zinegotziak aitortu ziela berak ere ez zuela parte hartu "pasa egin zitzaionako". "Adierazgarria iruditzen zaigu, kontu honekin guztiarekin izandako jarreraren isla baita. Gezurretan eta tranpetan aritu dira, aitzakiak besterik ez ditugu entzun edota orain arte bete ez diren (eta nahikoa ez diren) promesak".

"LORTU ARTE EZ DUGU ETSIKO, MUGITZEN GARENEAN LORTZEN BAITUGU UDALA MUGITZEA"

Lasarteoriatarren argazkiekin osatuko dute 2023ko egutegia

Herritarrak protagonista izan daitezen nahi du udalak; 'Lasarte-Oria zure objektiboan' argazki lehiaketa iragarri du

Txintxarri

16 urtetik gorako lasarteoriatarrek izango dute argazkiak aurkezteko aukera, baina bakoitzak, gehienez, hiru bidali ahalko ditu lehiaketara. Argazkien gaia librea den arren, herriko espazio edo jarduera baten

erakusgarri izan behar dutela zehaztu dute. Egile bakoitzak aurkeztutako argazkiak zein hilabeteri dagokion argitu beharko du irudiarekin batera.

Udal erregistroaren edo udalaren web atariaren bidez bidali beharko

dituzte irudiak, 2022ko urriaren 28a baino lehen. Azaroaren 2tik 17ra arteko tartea izango dute epaimahaiek argazki sarituak zeintzuk izango diren eztabaidatzeko, eta 18an emango dute erabakiaren berri.

Lan guztien artean hamabi aukeratuko dituzte. Garaile nagusiak herriko komertzioetan gastatzeko 150 euroko erosketa txartela jasoko du, eta gainerako 11ek 100 euroko erosketa bonuaK irabaziko dituzte. Informazio osoa, www.txintxarri.eus atarian.



Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandez eta Agustin Valdivi alkatea. TXINTXARRI

Ohiko plazara itzuliko da Udaltop, kultur etxera

Hilaren 12an eta 13an egingo dute XIV. Udaltop, ohiko formatuan: hamaika solasaldi, bi jardunaldi presentzialetan. Antolatzaileen hitzetan, topaketaren "helburu nagusia" da 16 urte artekoentzako "hizkuntza politika egokia antolatzeko jarraibideak" ematea

Txintxarri

Eskolak bakarrik ezin badu... Zer eta nola egin behar dugu udalerrian hobeto 16 urte bitartekoentzako hizkuntza politika egokia antolatzeko? izenburupean, udaletako Euskara zerbitzuen aurtengo topaketen "helburu nagusia" izango da adin tarte horretako neska-mutilentzat "hizkuntza politika egokia antolatzeko jarraibideak" ematea, antolatzaileek jakinarazi dutenez. Pandemiaren aurreko formatu presentziala berreskuratu du aurtengo Udaltop, baina nahi dutenek aukera izango dute jardunaldiak sarean jarraitzeko.

Egitarauak "lau ardatz nagusi" izango ditu: eskola, ikuspegi orokorra, talde lana eta eskolaz kanpoko jarduerak. Aurtengo aldia ere euskararen lurralde guztietako erakundeek antolatu dute: Euskal Hirigune Elkargoa; Eusko Jaurlaritzak; Nafarroako Gobernuak; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiek; Lasarte-Oriako Udalak; eta, aurtengo aurrenekoz, Jaurlaritzako Hezkuntza sailak. Erakunde horren baitan dagoen Berritzeguneetako Hizkuntza Normalizaziorako Aholkularitza Zerbitzua batu izana da XIV. Udaltopen "nobedade apagarrietako bat". "Komenigarria,



Udaltopen X. aldiko hitzaldietako bat, kultur etxean, ikus-entzulez lepo. TXINTXARRI

beharrezkoa eta aberasgarria iruditu zaigu antolamenduaren ikuspegia hedatzea eta hizkuntza politikaren arloan gabiltzan eragileok hezkuntzakoekin elkarlanean jardutea".

Aurkezlea, Pili Kaltzada

Hilaren 12an eta 13an egingo dituzte udaletako Euskara zerbitzuen topaketak. Hizlariak eta saioak "definituta" daudela azpimarratu dute antolatzaileek, eta iragarri Pili Kaltzada kazetaria izango dela aurkezlea. Martxoan iragarri zituzten programaren ildo nagusia, baina ordutik hona

"nobedade batzuk" gehitu dituztela esan dute. Bi nabarmendu dituzte: batetik, Seaska ikastolen elkarteko ordezkari Xan Aire etorri eta Ipar Euskal Herrian haur eta nerabeen euskarazko errealitatea hobetzeko gakoak emango dituela; eta, bestetik, hitzaldi artean aurtengo gaiarekin lotura duten praktika onak ezagutu ahaliko dituztela partaideek, bideo testigantza bidez. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Ipar Euskal Herri eta Nafarroako lekukotzak bildu ditu antolakuntzak, eta hizlarien esperientziak ikus-entzunezko labor batzuetan jaso.



NEURE KABUZ
MAITANE REBE

Non dago zaintza?

Gaur egun ekonomia feminista puri-purian dagoen gai bat da, eta azkenaldian kultura, politika zein hezkuntza ingurunean maiz eztabaidatzen den kontzeptu bat dela esan daiteke. Hala ere, askotan ez da argi geratzen zer den ekonomia feminista. Gaur egungo ekonomia ordeztuko duen sistema bat izan daiteke? Eta honekin batera, genero parekotasuna eta kapitalismoa gainditzeko bide bat izango da?

Ekonomia feminista ez da emakumeak gaur egungo sistema ekonomikora gehitzea, merkatuak lekualdatzea bazik. Ekonomia feministak pertsonen beharrak asetzen eta ongizatea sortzen duten prozesu guztiak ekonomia direla kontuan hartzen du. Hau da, lana ez da soilik diru sarrerara batzuen truke egiten den jarduera, bizitza eusten duen giza jarduera oro lana da. Egitura sozioekonomikoa bi eremutan banatzen da: ekonomia monetizatua, eremu publikoa, eta ekonomia ez-monetizatua, non emakumeek zainketa lan ez ordainduak burutzen dituzten. Honen harira, zainketen krisiaren kontzeptua aipatu beharra dago. Emakumeak eremu batetik bestera iragateak zainketen krisia eragin duela esan ohi da. Honen aurrean, emakumeak lan bikoitza burutzen du, edo bestetik, bestelako jarduera horiek beste emakume baten gain uzten ditu. Beraz, zainketen krisia emakumeak "publikoki lanean" hasteak eragin du? Edo betidanik egon den krisi bat da?

Ekonomia feministak ekonomiako genero desparekotasuna ulertzeko eta gainditzeko hitza hartzen du, eta ideia bat argi du: ulertzerik ez dagoen ulertzeko eta ezabatze beharrezkoa da lan ez ordainduak kontuan izatea. Izan ere, ekonomia feministak, gaur egungo prozesu eta politika ekonomien inguruan hausnarketa bat eginez, ikusten ezin diren ekonomiaren eremuak leheneratzea eta hauek emakumeen eta gizonen artean dauden desparekotasunekin nola elkar eragiten duten ezagutzea lortzen du.

Beraz, ekonomia, kapitalista izateaz gain, heteropatriarkala ere bada. Heteropatriarkatuak gizona gailentzen duen gizarte egitura bat izateaz gain, "normalak eta naturalak" diren sexu-harreman bezala, emakumeen eta gizonen artean gauzatzen direnak bakarrik ulertzen ditu. Gaur egungo ekonomia familia eredu orokor bakar batean oinarritzen da, bikote heterosexual batez eta izan ditzaketen seme-alabez osaturik. Honetaz gainera, eredu ekonomiko honek gizonarentzako eta emakumearentzako hainbat rol bereizten eta legezkatzen ditu, desparekotasunak sortuz.

Laburbilduz, ekonomia feminista gaur egungo sistema ekonomikoa ordezkatzeko sistema bat dela ondorioztatu daiteke, eta beste hainbat helbururen artean, kapitalismoa eta genero desparekotasuna gainditzeko bidetzat jo daiteke.



Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

BIZIPOZA elkartearen eskutik
MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT CD+DVD sorta bikoitza
 zozkatuko ditugu izena ematen duten bazkideen artean.

Eman izena maiatzaren 29a baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean,
 eta 646 82 44 66 (whatsapp)






Arropa eta komplementu denda

Zatoz! Zuretzat look aproposa dugul!

Juan XXIII plaza | LASARTE-ORIA

Erraustegira martxa egingo dute hilaren 14an

'Zubietako erraustegiaz...zer ez digute esaten?' lelopean, errausketaren aurkako hainbat eragilek ekintza egingo dute. Okendo plazatik abiatuko da, 11:00etan. Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak bat egin du ekimenarekin, eta herritarrak parte hartzera animatu ditu

Txintxarri

Martxari ez diote lelo hori kasualitatez jarri Errausketaren Aurkako Mugimenduak eta ekintzarekin bat egin duten eragileek (Donostia Bizirik, Eguzki, Greenpeace eta Ekologistak Martxan). Prentsaurrekoa eman zuten hilaren 4an, eta bertan azaldu zuten zergatia: "Erraustegiaren kudeatzaileek eta Gipuzkoako zein Euskal Autonomia Erkidegoko agintariek hainbat gauza ilun ezkututzen dizkigute herritarroi". Hainbat adibide aipatu zituzten: azpiegitura horretako labeetan erretzen duten hondakin tona bakoitzeko zenbat karbono dioxido botatzen duten



Martxaren antolatzaileak, prentsaurrekoa hasi aurretik. ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIM.

airera; erretzen duten zaborraren %23a zepa edo eskoria gisa ateratzen dutela eta, besteak beste, Añorgako porlan fabrikara eramaten dutela, "porlanari nahastu eta munduan barrena zabaltzen jarraitzeko"; labeek errausten duten gehiena, %65a, birziklagarria dela; tximinetako filtroetan biltzen diren "errauts toxiko arriskutsuak" erretako guztiaren %3 direla eta Gaztelara eramaten dituztela.

Horren harira, nabarmendu zuten agintariek esan izan dutela tr a t a m e n d u m e k a n i k o biologikorako plantara (TMB) eramandako 138.000 tona errefusetik 6.380 berreskuratu omen direla, baina "ezkutatu" egin dutela "beste 90.000 tona hondakin birziklagarri labeetara erretzera" joan direla. "Horietatik, organikoak dira 60.000 tona, zabor nahasietan Zubietaraino garraiatutakoak". Zabor organikoa Gipuzkoako herri askotan "oso ondo" bereiztuta biltzen dutela jakinarazi zuten, baina hori borondatezko gaikako bilketa duten herrietan jasotako hondakinekin nahasten dela. "Ezkutatzen digute primerako

konposta egiteko balio duena alferrik galtzen dutela".

"Gipuzkoan sortzen diren hiri hondakinaren %87a birziklagarria izan arren, %55 besterik ez da birziklatu", adierazi zuten. "Horrek erakusten du benetako gaikako bilketa sistema eraginkorrak ezartzeko egin behar direla inbertsioak, ez birziklagarriak diren hondakinak erretzeko labeetarren planta eraikitzeke". Bidenabar, beste datu bat eman zuten: Donostian ez dutela zaborraren %42a baino gehiago biltzen gaika 2019tik, "Europak 2020rako jarritako %50eko helburutik oso urrun".

Laburbilduz, adierazi zuten agintariek "diru asko" xahutzen dutela "Zubietan eraikitako instalazio erraldoiak zuritzeke".

Elektrotxaranga eta joaldunak

Esan bezala, martxa Okendotik abiatuko da, 11:00etan. Antolatzaileek zehaztu dutenez, elektrotxaranga batek eta joaldunek lagunduko dituzte martxalariak. Lasarte-Orian Aire Garbiak bat egin du aldarrikapen egitasmo horrekin; herritarrak animatu ditu parte hartzera.



Apirileko Azken Ostiralean parte hartu zuten herritarrak, Kale Nagusia zeharkatzen. TXINTXARRI

Nazioarteko gatazketako preso politikoak gogoan

Hilabetero legez, Azken Ostirala egin du Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak. Apirilaren 17a Preso Politikoen Nazioarteko Eguna dela gogora ekarri dute. Bestalde, hilaren 7an Orion egingo den ekintzara joateko deia luzatu diete lasarteoriarrei

Txintxarri

Urte hasieratik egiten ari diren bezala, gai bat ardatz hartu zuten hilabeteroko ekintzan. Apirilaren 17a Preso Politikoen Nazioarteko Eguna izan dela gogoratu dute Palestina eta Mendebaldeko Saharara begiratu, George Ibrahim Abdallah libanotarraren gutun bat irakurri dute eta Hassana Aalia sahararrak hitz egin du.

George Ibrahim Abdallah Palestina askatzeko herri fronteko kidea, European arrazoi politikoengatik kartzelan denbora gehien daraman preso da; gaur egun, Lannemezango kartzelan dago Ibon Fernandez Iradi eta Aitzol Iriondo herritarrekin batera. Berak idatzitako lerroak irakurri zituzten Okendo plazan. Gogoratu zuten, 1974an Palestinako Konferentzia Nazionalak ezarri zuen apirilaren 17a palestinar presoaren egun, ondoren preso iraultzaileen nazioarteko eguna bezala ezagun egin dena, eta "burkide gatibuen askatasuna, dinamika orokorrean txertatzea" xede duela, presoek kartzelatik ere borrokan parte hartzen dutelako.

Palestinaren erresistentziaren berri entzun ondoren, Hassana AaLiak hartu zuen hitza, preso sahararren egoera azaltzeko. Eskerrak eman zizkien plazan zeudenei haiek kontuan hartzeagatik eta babesarengatik. Kontatu zuenez, 42 baino gehiago daude Marokoko espetxeetan, Mendebaldeko Sahararik kanpo, ehunka kilometrotara; eta han, hemen bezala, senideek bidaia luzeak egin behar dituzte bisitatzeko. "Borrokan jarraituko dugu preso politiko guztiak atera ahal izateko, borroka egiteagatik daudelako kartzelan, eskubiderik gabe", esanez amaitu zuen.

Oriara joateko deia

Bestalde, euskal presoen eskubideen urraketak salatzen jarraitzeak duen garrantzia nabarmendu zuten Sarek eta Etxerateg, eta "kalera irteten" jarraituko dutela azpimarratu. Hurrengo ekintza hilaren 7an egingo dute, Orion, eta Lasarte-Oriako zutabea 09:15ean abiatuko da, Okendotik. Ekitaldi nagusia 13:30ean izango da. Ibilbidea "edonork egiteko modukoa" dela zehaztu zuten agerraldian.

Tximista Egun jendetsu eta ozena egin dute

Jalgi kafe antzokiak egun berezi bat ospatuz bukatu du apirila: Tximista Eguna, Trumoi taberna zenaren omenez. Urdaiazpiko moztalea, bermuta eta kontzertuekin osatu du egitaraua: Xilikona eta The Noisemakers igo dira eszenatokira

Txintxarri

Herritar gutxi izango dira Trumoi taberna ezagutu ez dutenak. 2011tik 2020ko ekainera –orduan itxi behar izan zuten, COVID-19aren pandemiak eragindako egoera tarteko– Javi Mora eta Nagore Urdangarinek kudeatu zuten, eta belaunaldi ugaritako kideen toki kuttun bilakatu zen: pintxo eta edariak ez ezik, makina bat ekitaldi eta kontzertu egin zituzten lokal horretan. Mora eta Urdangarin Jalgi kafe antzokian ari dira lanean orain, eta garai bateko Trumoi oroitze aldera, Tximista Eguna egin zuten apirilaren 30ean. Esan beharrik ez dago

jende ugari erakarri zuela, gozetik hasi eta iluntzera arte lepo egon zelako taberna, arratsaldean gehienbat, egun eta aldi berean ekimen ugari izan baziren ere.

Xilikona eta The Noisemakers

Xilikona eta The Noisemakers. Bi talde horiek astindu zuten Jalgi, eman zituzten kontzertuekin. Rock estiloko abestiak jo zituzten lehenek, eta 80. hamarkadako rock eta punk bertsioak taularatu bigarrenak. Barricadaren *No hay tregua* eta *Blanco y negro* (abesti horrekin itxi zuen emanaldia The Noisemakersek),

La Polla Recordsen *No somos nada* eta *Txus*, Reincidentesen *Ay Dolores* eta *Vicio...* Klasiko ugari entzun eta abestu zituzten ikus-entzuleek. Bitxikeria gisa, The Noisemakers taldeko abeslaria Javi Mora bera da. Tarte batez agertoki gainera igo ez izanagatik, bi taldeek erakutsi zuten sasoi betean daudela eta ez zaiela ahaztu zuzeneko bat egitea zer den.

Musika emanaldien aurretik, indarrak hartzeko, Manuk moztutako urdaiazpikoa dastatu zuten bezeroek, eta bermutarekin nahiz beste edari batzuekin busti. Eguraldi onak lagundu zuen horretan.



Jalgi kafe antzokiko terraza, bezeroz lepo. TXINTXARRI



The Noisemakers taldeak bertsio ezagun ugari jo zituen. TXINTXARRI

PSE-EEren "jarrera aldaketa" salatu dute

'PSE-EE entzun: saharar herriak erabaki dezala!' lelopean, Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak elkarretaratzea egin du. PSE-EEren egoitza aurrean elkartu dira, eta herriari "azalpenak" emateko beharra azpimarratu dute

Txintxarri

Sahararen bandera eskegi, musika jarri eta pankartaren atzean jarri dira elkarretaratzera joandako lasarteoriatarak. *PSE-EE entzun: saharar herriak erabaki dezala!* lelopean egin dute protesta, Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak deituta.

PSE-EEren egoitza aurrean elkartu dira, Zumaburu auzoan, hain zuzen ere, alderdi horrek Mendebaldeko Sahararekiko azken boladan izan duen "jarrera aldaketa" salatzeke. Tomas Arruti aipatu taldeko kideak hartu du hitza, eta pasa den hilabeteko udalbatzarrean aurkeztutako



Tomas Arruti hizketan. TXINTXARRI

mozioaren gainean hitz egin du. Gogoratu du EH Bildu, EAJ eta Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdien aldeko bozkei esker

egin zuela aurrera, eta PSE-EE aurka agertu zela. Alderdi sozialistaren azken aldiko jarrerak sahararrei barre egiten ari direla adierazten duela azpimarratu du: "Otsailaren 27an *Maroko Saharatik at! Independentzia* zihoen pankarta heldu genuen elkarrekin, eta orain, Sahararentzat autonomia eskatzea lotsagarria da".

Herrian bizi diren sahararrak ere gogoan izan ditu: "Horiei ere azaldu beharko die PSE-EEk zergatik egin duen jarrera aldaketa hori. Horrela beste 50 urte gehiago egon beharko dute hemen, eta guk, euren herrira buelta daitezten nahi dugu"



TXINTXARRI

Kapera birgaitzen hasi dira

Oria auzoko Karmengo Kaperaren fatxada birgaitzen hasi da Lasarte-Oriako Udala. Obrak Unai Sanmarful Torrado enpresari esleitu dizkio, 47.129,50 eurotan. Ondo bidean, lanek hilabete eta erdi iraungo dute: kanpoaldea pikatu, saneatu eta berriz pintatuko dute. Moldaketa horiek egin bitartean, Zelalalde kaleko bost aparkaleku okupatuko dituzte langileek.

ZUZENKETA

Lasarte-Oriako Amaiur ekimena, antolatzaile

TXINTXARRI aldizkariko 1583. zenbakian, orrialde honetan bertan, argitaratu genuen Nabarralde fundazioak antolatu zuela *Noaindik Amaiurrera 1522-2022* hitzaldia, eta ez zen hala izan. Eragile horrek lagundu bazuen ere, jatorrizko ideia Lasarte-Oriako Amaiur ekimeneko kideena izan zen, Txema Benito eta Iñaki Letamendirena.

Atari zabaleko dantzaleku, herriko komentu aurrea

Koronabirusak eragindako pandemia osteko zuzeneko emanaldiak berreskuratu ditu Dantz Point egitasmoak. "Arrakastatsua" izan dela azpimarratu dute antolatzaileek, eta jakinarazi, mila pertsona baino gehiago bildu dituela Lasarte-Oriako edizioak

Txintxarri

Ama Brigitarren komentu aurrealdean musika elektronikoaren doinuak bete zuten Dantz Point ekimenak apirilaren 30 iluntzetik gauerdia bitartean. Zabalgunean jende ugari bildu zen musika entzun, dantza egin eta giroaz gozatzeko. Lehen orduan, gertu zeuden bakarrak haurrak ziren eta inguruan eserita, adin guztietako jendea. Paolo Solo eta Furonia DJen saioak aurrera egin ahala, ordea, gazteak nagusitzen joan ziren eta nahasketa mahaiaren aurrean pilatu ziren dantza egiteko. Ezohiko aisia aukera

honek, beraz, herritarren jakin-mina piztu zuen. Dantz Point Jokin Telleria lasarteoriatarrek sortutako egitasmoa da, herriko ondare historikoa edo artistikoa eta musika elektronikoa uztartzea xede du.

2017tik martxan

2017an jaio zen Dantz proiektua, eta, bi urte geroago, 2019an, Dantz Point egitasmoa jarri zuten abian. Duela bi urte gainera, nazioarteko sari bat lortu zuen Dance Television-en eskutik. Aitortza horrek "proiektua bultzatzeko eta Gipuzkoa mapan jartzeko" balio izan zuela adierazi du Jokin

Telleria herritarrek eta egitasmoaren antolatzaileek.

Gainera, Dantz Pointek duela gutxi 200.000 euroko laguntza jaso du Europako funtsetatik Dantz Point Europe proiektua bost herrialdetan sustatzeko, Europar Batasuneko kultura-ondarea belaunaldi berriei forma eta eduki berritzaileen bidez, kasu honetan musikaren bidez, hurbiltzeko.

Aipatu egitasmoak ondarea musika elektronikoarekin eta abangoardiakoarekin bateratzea du helburu, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren laguntzarekin antolatu dute.



Mila pertsona baino gehiago bildu ditu Dantz Point egitasmoak herrian. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako hitzorduaz gain, Gipuzkoako beste hainbat herritan ere egingo dela iragarri dute antolatzaileek. Momentuz aurreratu dituzten espazioak hauek dira: Tolosako Zumardi Txikian, Oiartzungo Arditurriko meategian edo Donostiako Kursaleko terrazan. Irun eta Hondarribian ere izango dira ekitaldiak, baina herri horietako zein

guneetan egingo den zehaztu gabe dago oraindik.

Balorazio ona

Pandemiaren ondorengo lehen Dantz Point presentzialak "erabateko arrakasta" izan duela azpimarratu dute antolatzaileek. Jakinarazi dutenez "Mila parte-hartzaile baino gehiago" bertaratu ziren egitasmoa; sortutako "giro ona" ere nabarmendu dute.

Lore eta landareek koloreztatu dute Okendo

Lasarte-Oriako Udalak eta Behemendi Elkartek antolatutako azoka. Iaz Andatzan egin ondoren, bi urte geroago, bueltatu da ohiko lekura. Eta herritarren erantzuna ona izan da, eguerdi partean asko izan baitira erakusmahaietan begira ibili direnak

Maiatza loreen hilabetea omen da, apirila, berriz, euriarena. Amaitzean zen hilabeteak hurrengoaren lekua hartu zuen apirilaren 30 goizean, Okendo plaza kolorez betez. Jendea ez zen falta izan eta lore edo landare berriren bat erosi zutenak ere ez dira gutxi izan. Igandean Amaren Egun bezperan, jabea lortu zain lore sorta ugari ere prest zituzten postuetako batean.

Lasarte-Oriako Udalak eta Behemendi Elkartek antolatutako azoka, 10:00etatik 14:30era egin zuten Okendo plazan. Iaz Andatzan egin ondoren, bi urte geroago, bueltatu zen ohiko lekura. Eta

herritarren erantzuna ona izan zen, eguerdi partean asko baitziren erakusmahaietan begira zebiltzanak.

Txokoren bat apaindu edo oparia erosteko non aukeratu izan zuten lasarteoriatarrek dozena bat ekoizleren postuetan. Zuhaiak, barneko edota kanpoko landareak, aromatikoak, zukutsuak... Haztegiatiko eskaintzaz gain, lore eta landareekin egindako produktuak ere baziren: apaingarriak, haziak, kosmetika, sendabelarrak... Azokak funtzio didaktikoa ere baduela nabarmendu zuten egitasmoaren aurkezpen prentsaurrekoan

antolatzaileek; haurrentzako bi landare tailer eta egurrezko jolasak izango zirela iragarri. Hala, helduak erakusmahaietan begira zebiltzan bitartean haurrak ez aspertzeko, gainera, zenbait jolas jarri zituzten plazaren erdigunean eta guztietan ibili dira gehienak.

Honako hauek izango ziren euren produktuak erakutsi eta salgai jarri zituzten haztegiak: Viveros El Montañes, Zunoyar Lorategia eta Islaya, Ortuberri, Urtinea, Arizkurengo Tienduka, Lore Prentsatua, Semillas Ecológicas, Sojo natura, Sara Letamendia, Flores Ganchillo eta Tissus Artisautza.



Lore eta landare eskaintza zabala ekarri dute haztegiek Okendo plazara. TXINTXARRI



Egurrezko jolasetan aritu dira etxeko txikiak. TXINTXARRI

Barrikotea eginez agurtu dute apirila Extremadura Etxekoek

Sagardotegiko ohiko menu goxoa jan dute 35 bat lagunek, eta Bereziartuako sagardoarekin txotx egin, giro ederrean

Txintxarri

Sagardotan bustitako afari goxoa jan zuten 35 bat lagunek Ama Guadalupe Extremadura Etxean, apirilaren 29an. Urteko laugarren hilabeteari agur esateko barrikotea egin zuten, Bereziartuako sagardoarekin. Afaltzeko ordua 21:00etan ezarria zuten eta ordurako prest zeuden mahaiak, upela eta gau atsegina igartzeko beharrezko osagai guztiak. Sukaldetik usain goxoa iristen zen eta zerbitzatzeko ardura izan zuten kideek behar bezain bestetan egin zuten handik mahaietara bidea (eta buelta), eskuetan zerbait zutela.

Noizean behin oztoporen batekin topo egiten zuten: upeletik sagardoa hartzen ari zirenen ilarak. "Txotx!" maiz entzun bazen ere, hura gabe basoa betetzera altxa ziren

batzuk. Teknika hobeto edo okerragoarekin, denek hartu zuten edateko nahikoa.

Sagardotegiko ohiko menuari ekin aurretik, odolkia dastatzeko aukera izan zuten jatunek. Sukaldean jo eta su aritu ziren lanean jarraian etorriko ziren platerak prestatzen: bakailao tortilla, bakailao frijitua piper berdeekin eta txuleta. Lehenengoarekin zartagin artean ari zirenerako, parrilaren bero eta usaina nabari zen eta atonduta zituzten osagai guztiak behar ahala erabiltzeko. Postreko hiru osagaiak, -gazta, irasagarra eta intxaurrek- ere zerbitzatzeko pronto. Zuzendaritza batzordeko kideek eta hainbat bazkidek egin zituzten zerbitzari lanak.

Platerak hustu, gosea berdindu, eta sagardotan bustita gaua nahi beste luzatu zitzaizen batzuei.



Ezkerrean, jatunetako batzuk txotx egiten. Eskuinean, sukaldari taldea, menu goxoa prestatzen. TXINTXARRI

San Pedro Jaietan jarduerak egiteagatik, dirulaguntzak

Aurtengo festak iragartzeko kartelak aukeratzeko epea hilaren 8an bukatuko da; bozka sarean eman behar da

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak 9.449 euro bideratuko ditu herrian egoitza duten pertsona fisikoei zein juridikoei dirulaguntzak emateko, aurtengo sanpedroen harira. Eskerak egiteko azken eguna hilaren 16a izango da, astelehena.

Bete beharreko baldintzak hauek dira: dirulaguntzak eskatzen dituztenen erregistro orokorrean alta emanda egotea eta "behar bezala" betetzea eskaera orria.

Dirulaguntza eman ala ez erabakitzerakoan, udalak zenbait irizpide izango ditu kontuan: programaren aurrekontuak 40 puntu balioko ditu, asko jota; partaide kopuruak, hogei; jardueraren finantzazio tasak, hamabost, eta errotza mailak, hamar; antzeko proposamenekiko koordinazioak, beste hamar; eta,



2018ko helduen txupina. TXINTXARRI

azkenik, entitatearen fidagarritasun mailak, bost.

Bestalde, aurtengo jaiak iragartzeko kartelak aukeratzeko azken eguna hilaren 8a izango da. Herritarrek www.lasarte-oria.eus webgunean eman behar dituzte bozkek.

Azkorteko Erromeria



2022ko maiatzak 8

11:00: Meza Azkorteko ermitan

12:00etatik aurrera: Herri-kirolak

Ttiriki-Ttarraka taldeak girotutako erromeria eta bertsolariak

Indarrak berreskuratzeko salda, txorizoa, odolkia eta edaria, tabernan!



Autobus zerbitzua doan

*Goizeko 09:00etatik aurrera, erretiratuen elkartetik (Kale Nagusia 40 Lasarte-Oria) ermitara.

**Ezingo da kotxez ermitara igo, bidea itxita egongo da.

ERRETIRATUEN ELKARTETIK - AZKORTERA (SANTA KRUZ)	AZKORTETIK (SANTA KRUZ) - ERRETIRATUEN ELKARTERA
9.00	9.30
10.00	10.30
11.00	11.30
12.00	12.30
13.00	13.30
14.00	14.30
15.00	15.30



Egitasmoaren amaieran dantzari guztiek talde argazkia atera zuten elkarrekin. TXINTXARRI

Erakustaldi ederra egin dute

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko IX. Dantza Topaketa egin du Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak. Eurekin parte hartzera gonbidatu dituzte herriko hainbat dantza eragile, eta txukun-txukun prestatutako koreografiaren emanaldi bikainak eskaini dituzte denek

Txintxarri

Dantza erakustaldi ederra egin zuten Lasarte-Oriako dantzariak Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko (apirilaren 29an); IX. Dantza Topaketa egin zuen Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak bezperan. Herriko hainbat dantza eragile gonbidatu zituen egitasmoan parte hartzera.

Erakustaldiei hasiera eman aurretik, manifestu bat irakurri zuten Kukukako kide Leire Yeregik eta Puri Fadriquek. Sue Jin Kan Hego Koreako dantzariaren hitzak ekarri zituzten plazara. Hau da irakurri zuten testua:

COVID-19aren hondamendiak bizitza librea ezagutzen genuen bezala geldiarazi du, eta tragedia honen erdian egoteak dantzaren eta dantzariaren esanahia birplanteatzera garamatza. Iragan urrun batean, dantza keinuen bidez adierazteko eta komunikatzeko oinarritzko bidea zen, arima hunkitzen eta publikoa inspiratzen zuen arte eszeniko bihurtuz. Momentuko artea da, eta, osatu ondoren, zaila da jatorrizko forma

berreskuratzea, gorputz eta arima osoarekin sortzen baita. Dantza une iragankorrez egin dago, eta horrek dantzariak etengabeko mugimenduan egotera bultzatzen ditu. Hala ere, Covid-19ak dantzaren artea mugatu eta are blokeatu du bere jatorrizko forman.

Horrek, dantzak eta dantzariak bitxiak bailiran distiratsen eta mundua argitzen zuten garaietako oroitzapen ederrak agerrarazten dizkigu, giza larritasuna eta antsietatea, bizitzeko borondatea eta itzaropena transmitituz.

Entzule nekatu eta bakartia dantzarien sinpatiaz eta kontsolamenduaz egarri da. Dantzari gisa, uste dugu gure hegoak astintzeak itzaropena ematen diela dantzaren artea maite dutenen bihotzei, eta pandemia hau gainditzeko adorea ematen diela.

Bihotza taupadaka hasi zait.

Dantza mota ugari

Erketz EDTko dantzariak izan ziren agertokira irteten lehenak. Aureskua dantzatu eta Semblante

Andaluz elkarteko dantzari gazteen txanda izan zen gero. Andaluziako doinu eta dantzen erakustaldi alaia eskaini zuten.

Lehoi kume talde bat agertu zen bat-batean plazan, eta funky erritmora astindu zituzten gorputzak; trebezia ederra erakutsi zuten denek. Emanaldi hori amaituta, berriz sevillanek hartu zuten Okendo plaza. Amaia Gonzalez Caballero akademiako dantzariak aritu ziren dantzan; kolore gorri eta beltzeko jantzi dotoreak soinean eta kaskainetak eskuan hartuta egin zuten dantza.

Euskal dantzak ere ekarri zituzte nKukukako kideek. Hiru talde aritu ziren ikus-entzuleen aurrean eta espartinak jantzita bizi-bizi astindu zituzten oinak. Dantza lirikoaz gozatzeko aukera ere izan zuten egitasmo gerturatutakoek. Amaia Gonzalez Caballero akademiako ikasle Lucia Muiñosek eta Xabier Vazquezek erakustaldi ederra egin zuten.

Muxikoen erritmoekin dantzan amaitu zuten emanaldia eta talde argazkia atera zuten amaieran.



Erketz EDTko dantzariak ekimenari hasiera emateko aureskua dantzaten. TXINTXARRI



Trebetasun handia erakutsi zuten lehoi gaztetxoek, funky erritmora dantzan. TXINTXARRI



Amaia Gonzalez Caballero akademiako kideek erakustaldi dotorea egin zuten. TXINTXARRI



Kukukako kideek euskal dantza sorkuntza piezak dantzatu zituzten. TXINTXARRI

Talentudunen erakustaldia

Udaberriko Bertso Saioa bere ohiko urtarora bueltatu da. Protagonista nagusiak Ane Labaka, Alaia Martin eta Maialen Lujanbio bertsolariak izan dira, baina kultur etxeko agertokia beste sortzaile batzuekin partekatu dute. Eta aurkezle lana egin duen Bea Egizabalekin, noski

Maitane Aldanondo

Bea Egizabalek amets bat izan du beti: gai jartzaile izatea. Ikastaroa osatu, bere burua prestatu (edo), eta praktikak egiteko aukera eman zioten apirilaren 30en egindako Udaberriko Bertso Saioan. Agertokira irten, lehen hitzak esan, lehen barreak eragin, eta kontu bat argitu nahian nahasi zen. Zenbatgarren Udaberriko Bertso Saioa izan da aurtengoa? 2007an lehena egin zutela jakinda aritmetikak aise eman zion emaitza: hamabost. Pandemiak, ordea, 2020koa bertan behera utzi zuen, eta iaz, loraldian beharrean, uzta garaian heldu ziren bertsoak. Hortaz, XIII. Badaezpada, ordea, 2022ko Udaberriko Bertso Saioa esatea erabaki zuen aurkezleak.

"Hiru erregina, hiru jainkosa, hiru eguzki, hiru izar!" deitu zituen Alaia Martin, Ane Labaka eta Maialen Lujanbio bertsolariak. Estilo librean, berezkoan, bota zituen gaiak Egizabalek, ikastaroan notarik zergatik jarri ez zioten ulertaraziz. Esaterako: "Ane, Maialen, Alaia, esan 'kaixo' jendeari zuek dakizuen moduan"

edo "Berezkoa ala ikasia?", hau da, "sukaldaria jai egiten da edo egin egiten da? Suhiltzaile bat? Txotxolo bat, hori jai egiten da edo egin. Ez da berdina zaren edo egin zaren". Hiru bertsolariek hausnartu zuten horren gainean eta Lujanbiok oparitu zion erantzuna. "Bat bertsolari bihurtu egiten da/ ikasi ondoren hainbeste/ ta bertsolari eta txotxolo /ere bihurtu zaitezke".

Ustekabeen atsekabea

Saioa gidatzea ez zen uste bezain erraza izan Egizabalentzat. Lehen gaia jarri nahi zuenean, Kukukako kideek kendu zioten lekua dantza egiteko. Ez ziren bakarrik izan. Unibertsoarentzat oso garrantzitsua dela izateak eragindako ahalduntzeak bultzatuta, "egiten ikasten da eta oholtzak hartu behar ditugu" botatzea bururatu zitzaion aurkezleari, eta bere lekua hartu nahi zuten espontaneoak agertzen joan ziren, bata bestearen atzetik. Lehen ilaratik altxa zen Sara Etxeberria, eta agertokiaren iskina batean saioak iradokitakoa mihise gainean irudikatzen ari zen Laura Perez batu zitzaion zereginen.

Ondo hartu zuen aurkezleak neskaren bulkada. Ez horrenbeste, berriz, Earra bertso eskolako Nora gaia jartzera igo izana. Alaia eta Ane ahizpa bilakatu, eta hiltzekotan dagoen amonaren eskakizuna betetzeko lana egokitu zien: marihuana lortzea.

Jarraitzen saiatu zen Egizabal, baina jotak abestu eta dantzatzera igo ziren hiru emakume, aurrerago Martinek nabarmendu bezala "espontaneo jantzita" Protagonismoa partekatu behar izateak aztoratzen zuela argi utzi du aurkezleak, algarak behin eta berriro eraginez. Agertokira bueltan, bere txanda zuela pentsatu zuen, baina funk erakustaldiarena zen. Gogotsu eta indartsu dantza egin zuen gazte taldeak eta txalo ugari jaso. Gorputz mugimenduari heldu, eta biek bakarrik Gure zirkua osatzeko erronka jarri zuten sudur gorriak Labaka eta Lujanbiori; bertsotan, noski.

Aurreikusita zeudenek eta bat-batean agertu zirenek talentuz bete zuten oholtza. Haiek ere, akaso, amets bat beteko zuten, gora beherak gora behera, Egizabalek egin bezala.



Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako kideek 'Buruz behera' dantzatu zuten. TXINTXARRI



Earra bertso eskolako Norak gaia jarri izana ez zitzaion gehiegi gustatu Egizabali. TXINTXARRI



Hiru 'espontaneo' agertokira igo ziren jota bat dantzatu eta abestera. TXINTXARRI



Bea Egizabalek izan zuen saio aurkezteko eta hiru bertsolariei gaiak jartzeko ardura. Berezko estiloan egin zuen. TXINTXARRI



Laura Perez sortzaileak irudia margotu zuen Sarak lagunduta. TXINTXARRI

Ostadarreko jubenil taldeak finala jokatu du

Maiatzaren 14an, Gipuzkoako txapelketako finala lehiatuko du Ostadar Boleibol saileko taldeak. Finalerdian Fortuna garaitu ostean, Aldapeta Maria A taldea izango du aurrez aurre Jubenil mailako Liga erabakiko duen norgehiagokan

Txintxarri

Partida zaila jokatu zuen Ostadar SKTren Jubenil taldeak apirilaren 30ean, Maialen Chourraut Kiroledegian. Gipuzkoako txapelketako finalerdiko bigarren neurketan finalerako txartela zegoen jokoan. Lehen partida borrokatua izan zen eta oraingoan ere, helburua lortzeko ederki lan egin beharko zuela argi zuen Lasarte-Oriako taldeak. Asier Acuriola Ostadarreko entrenatzaileak azaldu modura, "kalitate eta esperientzia handiko taldea da Fortuna. Liga erregularreko bigarren postua eskuratu zuen. Lehen partidaren gertatutakoa ikusirik, partida borrokatua espero genuen".

Partida ez zen ongi hasi, ordea. Jokalari gehienek lehen urtea izanik, taldea urduri ateratu zen kantxara. "Finala eskura izateak presioa eragin zien jokalariei eta lehen zatian ez ginen gai izan Fortunari aurre egiteko", azaldu du Ostadarreko prestatzaileak.



Ostadarreko eta Fortunaren partida borrokatua jokatu zuten. TXINTXARRI

Gauzak horrela, Fortuna nagusi izan zen jokoan eta 14-25 gailendu zen.

Talde urdin-beltzaren ezintasuna buruak sortutakoa zenez, bigarren zatia hasi baino lehen Acuriolak aholku batzuk

eman, eta partidari itzulia emateko lanean jarri ziren jokalariek.

Seta borrokatua izan zen. Ostadarreko jokalariek euren balioa erakusten hasi ziren; Fortuna lortutako errenta

handitzen saiatu zen. Lehia bizia zen, eta gutxiarik, etxeko taldeak 25-23 irabazi zuen.

Fortuna taldeak ez zuen hain erraz etsiko eta hirugarren zatian ere gogor egin zion aurre talde urdin-beltzari. Borroka agoniko baten ostean (27-25), Ostadarrek finalerako txartela lortu zuen.

Hori dela eta, azken seta lasai antzera hasi zuen taldeak. Alabaina, Acuriolak ederki estutu zituen azken minutuetan euren onena eman zezaten: "Partida irabazi eta dinamika positiboarekin amaitzea garrantzitsua zen eta jokalariek ongi erantzun zuten". Ostadarrek laugarren seta irabazi (25-19) eta neurraketa eskuratu zuen (3-1).

Denboraldi ezin hobea

Jubenil taldeak jokatzeko duen lehen finala izango da. Iazko irailean sortu zen taldea eta kadete mailako jokalariek osatzen dute. Pausoz pauso esperientzia hartu eta partidak irabazi ahala Gipuzkoako txapelketan goiko postuetan lekua egin zuen. Azkenean, hirugarren postuan sailkatu zen, gainditu berri duen Fortuna A taldearekin puntutan berdinduta.

Horregatik, Acuriolaren ustetan, jokalariek denboraldi ezin hobea egin dute eta finala izan da azken fruitua: "Taldeen etengabeko ilusio eta lanari esker eta jokalarien gaitasunei esker finalera iritsi dira eta pozarren nago".

Maiatzaren 14an, 12:00etan, jokatu da Gipuzkoako txapelketako finala, Donostiako Pio Baroja kiroledegian. Ostadarren aurkaria Aldapeta Maria A taldea izango da.

Aurkari zaila

Donostiako taldea lehen sailkatua izan zen Ligako lehen fasean. Taldeek bitan neurtu dituzte indarrak eta azkenekoan, partida borrokatua jokatu zuten bi taldeek; 2-3 gailendu zen Aldapeta Maria A.

Nahiz eta partida zaila aurreikusitako, talde urdin-beltzak Gipuzkoako txapela eskuratzeko aukerak daukela uste du Acuriolak. "Aurkariari aurre egiteko gai gara. Aldapeta Maria A taldea mentalki Fortuna baino sendoagoa da, baina teknikoki ahulagoa. Horregatik, gure puntu sendoak ongi erabili beharko ditugu. Finala borrokatua izango dela eta puntu luzeak jokatu beharko ditugula uste dut. Hori dela eta, erresistentzia ere landu beharko dugu," adierazi du.

Finalerdiaren ostean, hirtzordu berezi eta garrantzitsua prestatzeko bi aste ditu Ostadarreko Jubenil taldeak.

BERE LEHEN URTEAN, GIPUZKOAKO TXAPELKETAKO FINALA JOKATUKO DU JUBENIL TALDEAK

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Beti Gazte KJKE - Ostadar SKT Ostirala, 20:00. Mastegi, Lesaka, Nafarroa.
GOINGOEN MAILA, IGOERA
Roteta CD - Ostadar SKT Larunbata, 17:30. Herrera, Donostia.
ERREGIONALEN 1. MAILA, IGOERA
Ostadar SKT - Bergara KE Larunbata, 18:30. Michelin kirol gunean.
OJM, MAILA MANTENTZEKO FASEA
Eibar SAD - Ostadar SKT Igandea, 12:30. Unbe, Eibarren.
J. 1. MAILA, KOPA KANPORAKETA
Ostadar SKT A - Dunboa Eguzki CD B Igandea, 15:00. Michelin kirol gunean.
OKM, MAILA MANTENTZEKO FASEA
Ostadar SKT - Aloña Mendi KE Larunbata, 16:45. Michelin kirol gunean.
KADETE 1. MAILA, IGOERA
Texas Lasarteerra CF - Touring KE A Igandea, 13:15. Michelin kirol gunean.

K.1. MAILA, KOPA KANPORAKETA
Ostadar SKT A - Arrupe Chaminade CD A Igandea, 17:00. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO INFANTIL MAILA, KOPA
Ostadar SKT A - Lengokoak KE Larunbata, 11:20. Michelin kirol gunean.
INFANTIL TXIKI, PARTE HARTZEA
Ostadar SKT - San Marcial CD Larunbata, 09:45. Michelin kirol gunean.
I. 1. MAILA, TXAPELDUNEN F.
Texas Lasarteerra CF - Ekintza KE Igandea, 11:40. Michelin kirol gunean.
INFANTIL 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT A - Danena KE Larunbata, 12:55. Michelin kirol gunean.
Martutene KE B - Ostadar SKT B Igandea, 09:00. Martutene, Donostia.
ARETO FUTBOLA
1. MAILA
Eguzki Arkupe Rehabilitaciones - Euskalduna SD Ostirala, 20:50. Maialen Chourraut kirol.

2. MAILA
Ingou Coinbroker Aloña - Eguzki ISU Leihok Larunbata, 20:00. Zubikoa kirol., Oñatin.
JUBENILAK, UDABERRI TX.
Eguzki AF - Lauburu KE Ibarra A Larunbata, 11:30. Maialen Chourraut kirol.
SASKIBALOA
SENIOR 2. MAILA
Easo Araxes - Ostadar SKT Igandea, 10:00. Bidebieta kirol., Donostia.
SENIOR 3. MAILA
Arri BKL Gaztelu - Ostadar SKT Igandea, 12:30. Antzizar kirol., Beasainen.
J. ERRENDIMENDU, FASE FINALA
BKL Esparru - Ostadar SKT Larunbata, 16:00. Antzizar kirol., Beasainen.
KADETE ERRENDIMENDU
Ostadar SKT - Oiarso SKT (atzeratutako partida) Igandea, 09:30. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL HAUNDI PARTAIDETZA
Decoramik ISB - Ostadar SKT Larunbata, 10:45. Azpeitiako kiroledegian.

INFANTIL TXIKI
Ostadar SKT - Oiarso SKT Larunbata, 09:30. Maialen Chourraut kirol.
MINI
Ostadar SKT - Oiarso SKT Igandea, 11:15. Michelin kirol gunean.
BOLEIBOLA
KADETEAK, 9-12 POSTUA
Ostadar SKT - Fortuna KE Larunbata, 11:30. Pio Baroja, Donostia.
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Zornotzako Urgezoz RT Larunbata, 15:00. Michelin kirol gunean.
PILOTA
LAU ETA ERDI, SENIORRA 1. MAILA
Intza KE - Gazteleku Larunbata, 12:15. Michelin kirol gunean.
LAU ETA ERDI, JUBENILA 2. MAILA
Oiarpe - Intza KE (Urdanpilleta) Ostirala, 18:45. Madalensoro, Oiarzunen.
Intza KE (Diaz de Gereñu) - Tolosa Igandea, 10:15. Michelin kirol gunean.

LAU ETA ERDI, KADETEA 2. MAILA
Hernani - Intza KE Larunbata, 11:00. Udalekoa, Hernanin.
ATLETISMOA
EUSKADIKO TXAPELKETA
Ostadar Atletismoko kideek 18 eta 20 urtez azpiko Euskadiko txapelketa lehiatuko dute. Larunbata, Durango, Bizkaian.
LASTERKETA
AIAKO HARRIAK
Herritarrek zein herriko taldeetako ordezkariak Aiako Harriak probako mendiko lasterketan zein mendiko marxan parte hartuko dute. Igandea, 08:30. Arritxulo, Oiarzunen.
LANDARBASO TRAIL
Herritarrek zein herriko taldeetako ordezkariak Landarbaso Trail proban lehiatuko dira. Igandea, 10:00. Litorreta, Errenterian.
ZARAUZKO HERRI LASTERKETA
Herritarrek zein herriko taldeetako ordezkariak Zarauzko IV. Herri lasterketan parte hartuko dute. Igandea, 11:00. Zarautzen.

Bi domina gehiago eta marka berriak

Herriko atletak eskolarteko Gipuzkoako txapelketan zein Espainiako Ligako lehen jardunaldian lehiatu dira. Eskolartekoan, Ostadar SKTko Eider Redondok urrezko bi domina jantzi ditu; taldekide Naroa Furundarenak eta Enara Gonzalezek, berriz, markak ondu dituzte Ligan

Txintxarri

Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketa amaitu da. Maiatzaren 1ean, hirugarren jardunaldia jokatu zen Arrasateko Mojategi kirol gunean. Ostadar SKTko atletismo saileko gaztetxoak bertan izan ziren eta bi domina berri gehitu zituzten denboraldiko poltsara. Zehazki Eider Redondo alebina izan zen bi alditan podiumeko gorenera igo zen atleta. Gaztetxoak txapelketa ederrari amaiera eman dio. Aurreko jardunaldietan altuera-jauzian eta luzera-jauzian garaile izan zen eta bigarren, berriz, 60 metro hesi proban. Oraingoan, 60 m. lasterketan (8,36) eta jauzi hirukoitzean (8,75 m.) garaile izan da.

Era berean, Oihane Belartietaren lana azpimarratu dute taldeko arduradunek. Infantil mailako luzera jauziko proban, 4,63 metroko jauziarekin laugarren postua lortu zuen.

Klub Liga

Egun bat lehenago, apirilaren 30ean, Espainiako Lehen



Eider Redondo, Eskolarteko txapelketan eskuratutako dominekin. OSTADAR ATLETISMOA

mailako zein Ohorezko mailako taldeek Ligako lehen jardunaldia jokatu zuten; Sorian zein Donostian herriko ordezkariak izan ziren. Real Sociedad taldeak eta Yeray Veroniz herritarrak Joma Ligako Ohorezko Mailako denboraldiari ekin zioten Sorian. Atletismo Numantino, S.G. Pontevedra eta A.D. Marathon izan ziren aurkariak eta Donostiako taldeak bigarren

postua eskuratu zuen 192 punturekin.

Veronizek 100 m. lasterketan eta 4x100 m. erreleboan parte hartu zuen. Proba azkarrean laugarren postuan sailkatu zen. Errelebo proban, ordea, taldea kaleratua izan zen.

Ostadar Atletismo saileko kide Naroa Furundarenak eta Enara Gonzalezek, berriz, Ohorezko Mailako Iberdrola Ligako lehen

herritarra eta aurkariei "erraz" gailendu zitzaizen.

Hurrengo hitzorduak

Eskola Kirolako txikiak izango dira hurrengo asteetan hitzordu garrantzitsuak izango dituztenak. Alebin mailako judoek hilaren 7an bere mailako bigarren jardunaldia izango dute eta alebin txiki, berriz, hurrengo egunean.

Bestalde, hilabete amaieran, 28an eta 29an Alebin mailako Gipuzkoako txapelketa eta alebin txikiko Gipuzkoako kopa lehiatuko dituzte.

Gorka Aristegi entrenatzaileak, gainera, kadete eta infantil mailako Gipuzkoako taldekako txapelketaren data ere aurreratu du, ekainaren 4a.

Herritarrak, bikain proba

Herriko korrikalariak zein herriko elkarteetako ordezkariak hainbat probetan lehiatu dira apirilaren 30ean eta 1ean.

Andoingo XLII. Santa Krutz kros herrikoian, gainera, lehen postuetan izan ziren bi herritar; Maite Salazar hirugarren postuan iritsi zen helmugara (40.54) eta Raul Gomez Margallo, berriz, laugarren izan zen (32:33).

Beste ordezkari batzuk mendian ibili ziren. Esate baterako, GR 322 Nafarroa Xtrem probako lasterketa ezberdinetan izan ziren apirilaren azken egunean. 68 kilometroko lasterketan Xabier Mujika Urruzola herritarrak 08.07.05 denbora eginez hamargarren postuan sailkatu zen. Horrez gain, Lasarte-Oria Trail elkarte (LOTME) Inés Diaz (11.13.25), Karlos González (09.53.58), Juan Carlos Rivas (11.28.41) eta Asier Mendizabal (11.28.44) ere izan ziren lehiak. Borja Granadok (03.38.44), berriz, 35 kilometroko lasterketa egin zuen.

Eta maiatzari hasiera emateko, XXXI. Sakanako mendi martxan ibilbide politaz ere gozatu zuten LOTMEko kideek.



Maite Salazar, proban. J. ZATARAIN

jardunaldian izan ziren Super Amara Bidasoa Atletiko Taldearekin (BAT) Donostiako Kote Olaizola estadioan. Bi gazteek bina proba lehiatu zituzten eta Furundarenak lortu zuen BATen sailkapenik onena bakarkako lehiaketetan.

Herritarra garaile izan zen jauzi hirukoitzeko txapelketan eta aire libreko bere marka pertsonala ondu zuen 12,73 metroko jauzia eginez. Gainera, hirugarren postua lortu zuen

4x100 m. errelebo taldearekin. Azkena izan zen Furundarena.

Gonzalezek, aldiz, denboraldiko marka egin zuen luzera-jauzian (5,51 m.); jauzi hirukoitzean, ordea, 11,15 metroko jauzia burutu zuen.

BAT taldeak 136 punturekin amaitu zuen jardunaldia Ria Ferrol C. Arenal taldearekin berdinduta. aurretik Atletico San Sebastian eta Grupompleo Pamplona sailkatu ziren.

Maiatzaren 14an jokatu dute Ligako bigarren jardunaldia.

Asier Sagasti beterano mailako Espainiako txapeldun da

Lasarteoriatarrak bi borroka "erraz" gainditu ostean, 1. mailako 100 kilo azpiko urrezko domina jantzi du


Txintxarri

Maiatzaren 1ean Judoko Beteranoen Mailako Espainiako Txapelketa lehiatu zen Iruñean (Nafarroa). Lasarte-Oria Kirol Elkarte (LOKE) Asier Sagasti judokak 1. mailako 100 kilo azpiko lehiak parte hartu eta urrezko domina jantzi zuen.

Herritarrak bi borroka izan zituen Ruben Gimeno valentziarraren eta Iñigo Gerboles nafarraren aurka. Bietan ederki lehiatu zen



Sagasti, (ezkerrean) dominarekin. LOKE JUDO



HONDARRIBIA AE

Hondarribia, Getarian garaile

Trainerilla denboraldia hasi zen apirilean. Gipuzkoako Federazioak antolatutako ligako bigarren jardunaldia lehiatu zen maiatzaren 1ean, goizean, Getarian, eta Hondarribia Arraun elkarte (Hondarribia Arraun) Intza Fernandez herritarrak parte hartu zuen. Zumaia eta Donostia Arraun Lagunak taldeen aurka aritu zen, eta Hondarribiako trainerilla izan zen azkarrena, 16.09.29. Iruian, goiko lerroan eskuinetik laugarrena da herritarra.

Harrobiko taldeek kopako azken fasea hasiko dute

Jubenil zein kadete mailetako kopan lehen fasean lau talde aritu dira, eta bik lortu dute kanporaketetara sailkatzea, lanak ederki eginda. Final zortzirenetako partida Michelinen jokatu dute biek, multzoko lehen postuetan sailkatu direlako. Urrutira iristea espero dute

Txintxarri

Inurriek neguan nola, jubencil zein kadete mailako Ostadar A taldeek astebururo-astebururo pilatu dituzte puntuak, eta euren kategorietako kopetako azken fasea sailkatu dira. Multzoetako lehenengo eta bigarren postua erdietsi dituzte, hurrenez hurren, eta sari garrantzitsua eskuratu: final zortzirenetako neurketa, kanporaketetako aurrenekoa, etxean jokatzeko. Hilaren 8an jokatu dute biek: jubencil, 15:00etan, Dunboa Eguzki Bren aurka; eta kadeteek, 17:00etan, Arrupe Chaminaderen kontra.

Ostadarrek bi talde izan ditu lehiakategoria bakoitzean, lau guztira, baina bik soilik lortu dute fase erabakigarriko txartela. Gogotik saiatu arren, emaitzak ez dituzte lagun izan beste biek: azken jardunaldian 1-7 galdu zuten jubencil Santo Tomas Lizeoaren aurka; kadeteak, aldiz, Mundaizek garaitu zituen, 0-3. Atsedean



Kadeteen bigarren taldeak 0-3 galdu zuen Mundaizen aurka. TXINTXARRI

hartuko dute orain, 2022-2023 denboraldia hasi arte.

Helburua, "urrutira iristea"

Kadete kategoriako Ostadar A prestatzen du Beñat Loiarte herritar gazteak. "Oso pozik"

dago kanporaketetarako txartela poltsikoratu izanaz, eta azpimarratu du urdin-beltzen helburua "urrutira iristea" dela. "Badakigu zaila izango dela fasea, baina kopa oso serio hartu dugu; ea zer nolako jokoa



Reala Txapeldunen Ligarako sailkatzea ospatzen. REAL SOCIEDAD SAC

Reala, Txapeldunen Ligara

Balentria ederra egin du Realak: liga bukatzeko bi partidaren faltan, datorren denboraldiko Txapeldunen Liga jokatzeko aukera erdietsi du, Rayo Vallecano taldeari 4-0 irabazita Zubietan. Oraingoan, donostiarrak bigarren postuan dira, eta bertan mantenduz gero, txapelketa horretan aritzeko kanporaketa bakarra jokatu beharko lukete. Iraia Iparragirre herritarra izango da taldeko kideetako bat, duela gutxi berriro baitu kontratua, 2023ko ekainera arte.

egiteko gai garen, horrek merezi dugun tokian jarriko gaitu". Urtarril hasieran hasi ziren kopan lehiatzen, igoera fasetik at geratu zirenean. Atsekabea atzean utzi, eta ez ziren erlaxatu. Helburu argia zuten: ahalik eta neurketa gehien irabaztea, kanporaketak Michelinen jokatzeko hasteko.

Esan eta egin: hamalautik hamahiru norgehiagoka zakuratu dituzte, baina ezin izan dute

lehen postuan bukatu, Aizkorrik 36 puntu bildu dituelako, urdin-beltzek bezainbeste. "Pena eman digu horrek, baina fase berri bati ekingo diogu orain". Jokalariak "oso motibatuta" daudela adierazi du entrenatzaileak: "Infantilak zirenean kopako finalera iritsi ziren zenbait mutil, baina galdu egin zuten. Niri ere gertatu zitzaidan hori. Arantzatxo hori kendu nahi dugu guztiok".

Eguzki ISU Leihoak taldeak mailari eutsiko dio

Laugarren sailkatua den Tttakun AFE 2-1 garaitu du eta jaitziera jokatu dute azken postuetatik atera da

Txintxarri

Partida borrokatua aurreikusten zuen Eguzki ISU Leihoak taldeak apirilaren 29an, Maialen Chourraut kiroldegian. Tttakun AFE izango zuten aurrez aurre. Azkoitiko taldea 2. mailako play-offeko postua lortzeko lehiak zegoen; Herritarrek, berriz, azken postuetatik atera eta mailari eusteko puntuak behar zituzten.

Lehen minututik, partida parekatua bezain gogorra izan zen: defentsan fin, eta kontraerasoan aukerak ugari izan zituzten bi taldeek.

Lehen zatian Eguzki ISU Leihoak taldeak izandako akats baten ondorioz 0-1 aurreratu ziren aurkariak. Hala ere, etxeko taldeak ez zuen amore eman eta borrokan jarraitu zuen. Tamalez, izandako aukerak ezin izan zituzten gol bilakatu eta atsedendira 0-1 iritsi ziren.

Bigarren zatian hasieran, Jon Arozenak zuzentzen duen taldeak ez zuen eroso jokatu baina entrenatzaileak aitortu modura, bazekiten defentsan sendo mantenduz gero aukerak iritsiko zirela. Horregatik, bigarren zati



Defensa lan ederra egin zuen Eguzki ISU Leihoak taldeak neurketan zehar. TXINTXARRI

amaieran arriskatu eta atezain-jokalari atera zuen etxeko taldeak. "Nahiko ondo mugitu genuen baloia eta azkenean berdinketa iritsi zen zazpi minutu ingururen faltan", adierazi du Arozenak.

Aurkariak aurrera egin zuen garaipenaren bila eta partida amaitzeko bi minutu faltan, Unai Garciak defentsan egindako lan itzelaren ondorioz baloia lapurtu eta gol aparta sartu zuen markagailuan 2-1 aurreratzeko.

Partida amaiturik zegoela ere, kirioak dantzan izan zituzten herriko jokalariek. Azkoitiarrek penalti bikoitza bota eta huts egin zuten, Eguzki ISU Leihoak mesederako.

Esfortzuak, saria

Arozena prestatzaileak jardunaldi garrantzitsu honetan taldeak defentsan eginiko lana goraiatu du, baita Oscar Velizek atezpian egindako neurketa ere.

Pozarren dago lortutakoarekin: "Garaipenari esker eta sailkapeneko azken postuetan zeuden beste taldean emaitzen ondorioz, mailari eustea lortu dugu, beraz, pozik nago jokalari guztien esfortzuak saria izan duelako". Halaber, eskerrak eman dizkie kiroldegira gerturatu ziren zaletu guztiei, emandako animoengatik.

Marka eta sailkatzeak, hitzordu ezberdinetan

Buruntzaldea IKTko igerilariak txapelketaz txapelketa izan dira. Nahia Zudaire lehen postuetan izan da, Paralimpiar AXA Ligako jardunaldian; Nora Imaz San Marcial sarian hirugarren izan da eta txikienek Eskolarteko Gipuzkoako, zein Euskal Herriko txapelketarako gutxienekoak lortu dituzte

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilariak Valladolid, Irun eta Tolosan izan dira lehia eta euren onena eman dute. Nahia Zudairek Paralimpiar AXA Ligako bigarren jardunaldian parte hartu zuen, Valladoliden. Igeriketa egokituko Gaztela eta Leon nazioarteko saria jokatu zen eta hiru probatan lehiatu zen Zudaire; lehen postuetan izan zen.

Apirilaren 30ean, 50 m. tximeleta eta 100 m. bular probetan egin zuen igeri Zubietako gazteak eta bigarren postua (36,85) eta lehen postua (01.46,67) eskuratu zituen, hurrenez hurren. Maiatzaren Lehenean, berriz, 200 m. estilo probako garaile izan zen, 3.04,05 marka eginez.

AXA Ligako hurrengo jardunaldia maiatzaren 11tik 14ra lehiatuko da Mallorcan eta bertan izango da Buruntzaldea IKTko igerilariak Euskadiko Selekzioarekin. Horrez gain, Espainiako Selekzioak ekainaren 10etik 19ra Madeiran (Portugal) antolatuko den Munduko Txapelketako deialdia jakitera eman du; aukeratutako igerilarien artean dago Zudaire.

Ederki San Marcial sarian

Buruntzaldea IKTko Miren Sarobe, Garazi Etxeberria, Nora Imaz eta Unai G. Somovilla, berriz, Gipuzkoako Sarien A zirkuituko San Marcial Sarian lehiatu ziren, apirilaren 30ean. Hirugarren postu bat eta zazpi marka pertsonal lortu zituzten.

Junior mailakoak izan ziren emaitzarik onenak. Etxeberriak eta Imazek hiruna probatan parte hartu zuten, eta marka pertsonal ugari ondu.

Imazek junior mailako hirugarren postua eskuratu zuen 4.000 metro libre saioan egindako markari esker. Nahiz eta bere marka ez hobetu, herritarrek 4.38,49 egin zuen eta horrek 592 FINA puntu eman zizkion, junior mailako podiumera igotzeko adina.



San Marcial proban lehiatu ziren Buruntzaldea IKTko igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

Horrez gain, bizkar eta lau estiloetako 100 metroko probak lehiatu zituen gazteak. Bizkar estilo lehian, bi marka pertsonal ondu zituen. Lehenik 50 metroko pasean (36,04) eta bigarrena proba amaitzean (01.12,28). Lau estiloetan ere fin ibili zen eta marka berria eskuratu zuen (1.11,55).

Etxeberriak tximeleta estilo 50 m. eta 100 m. probatan parte hartu eta bietan hobetu zituen markak; lehenean, 30,53 egin zuen eta 100 metrokoan, 1.10,59. 100 m. lau estilo proban ere igeri egin zuen herritarrek eta bere onenetik gertu izan zen.

Miren Sarobe infantilak hatz batean lesio txikia izan arren, 400 m. libre (05.06,93) eta 100 m. tximeleta (01.20,53) probetako marka pertsonala hobetzea lortu zuen eta 100 m. lau estilo proban ere bere markatik gertu izan zen.

Unai G. Somovilla absolutu mailan aritu zen. Hiru probatan egin zuen igeri: bular estilo 50 m. eta 100 m. probetan eta 200 m. lau estiloetan. Bere marketatik gertu izan zen hiruetan.

Txikiak, amaiera bikaina

Bestalde, egun horretan bertan, taldeko alebinek eta benjaminen ligetako azken jardunaldia lehiatu zuten, Tolosako Usabal kiroldegian.

Benjaminak izan ziren lehenak lehiatzen, eta lau estiloetako probek egin behar izan zieten aurre. Guztiak ondo ibili ziren. Txikiak

garapena erakutsi zuten eta gaztetxoak – 2011. urteko neska mutilak eta 2010. urteko mutilak – "txukun aritu ziren".

Alebinen saioari dagokionez, igerilariak erronka ederrak izan zituzten: estilo libreko banakako 200 m. eta erreleboko 4x100 m. lasterketak eta lau estiloetako banakako 100 m. eta 400 m. probak zein erreleboko 4x100metrokoak. Gogotsu eta ganora handiarekin igeri egin zutela azpimarratu dute igeriketako taldeko arduradunek.

Guztien artean, Iñaki Garciak, Itxaso Iparragirek zein Nora Reyek eskuratutako gutxienekoak nabarmendu nahi dituzte. Garciak Euskal Herriko txapelketarako sailkatzea lortu zuen, 400 m. lau estiloetan (06.03,14) eginez, eta 200 m. lau estilo proban, berriz, alebin mailako Gipuzkoako Udako txapelketarako txartela lortu zuten Iparragirrek (03.31,97) eta Reyek (03.33,96).

Hitzorduak

Ligak amaituta, Buruntzaldea IKTko kideek txapelketa eta sari ugari parte hartuko dute.

Hiren 15ean, Eskolarteko Gipuzkoako txapelketan izango dira lehia lau lagun, Legazpin. Maiatz amaieran Euskadiko Kirol Jokoetan ere parte hartuko dute igerilari gazteek.

Beste hitzordu garrantzitsu bat ekainaren 11n izango da, Lasarte-Oriako 31. saria.

San Pedro jaietako pilota txapelketako izena ematea, irekia

Bi urteko etenaren ostean, Intza KEk haur eta gazte zuzendutako pilota txapelketa martxan jarri du

Txintxarri

San Pedro jaietako pilota txapelketako lehia Loidi Barreneko pilotalekura itzuliko da. Osasun egoerak behartuta azken bi urteetan ezin izan da lehiaketa antolatu. Intza Pilota elkarteak txapelketako izena ematea ireki du eta maiatzaren 19ra arte aukera izango da inskribatzeko. Baldintza nagusia parte-hartzaileak Lasarte-Oriakoak izan behar dutela da.

Sailkapen faseko neurketak eta finalerdiak larunbatetan eta igandeetan jokatuko dira Loidi Barren pilotalekuan; finalak, berriz, San Pedro jaien barruan izango dira.

Intzako kideek azaldu dutenez, lehiaketa hiru maila ezberdinduko dira: benjaminak (2012 eta 2013 urtean jaiotakoak), alebinak (2010 eta 2011 urtean jaiotakoak) eta infantilak (2008 eta 2009 urtean jaiotakoak). Guztiak pilota goxoarekin jokatuko dute eta antolakuntza egingo da piloten kargu.



2019ko txapelketako irudia. TXINTXARRI

Gainera, pilotariak kirol arropa erabili beharko dute jokatzeke; finalerdietan eta finalean, ordea, arropa zuria.

Era berean, pilota elkarteak lehiaketa zehar egon daitezkeen istripu edo lesioen erantzule egiten ez dela ere jakitera eman du.

Izena ematea Michelingo kirol guneko pilotalekuan egingo da astearte eta ostegunetan, 18:00etatik 19:00etara. Azken eguna, aipatu modura, maiatzaren 19a da.

Udan kirolaz gozatzeko, heldu eta gazteentzako jarduerak

Uztailean zehar hainbat ikastaro antolatu ditu Udako Kirol Zerbitzuak. Izena ematea ekainaren 17an amaituko da

Txintxarri

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak uztailean zehar antolatu dituen Udako jarduerak aurkeztu ditu. Herritarrek kirolaz goza dezaten ekimen berri eta erakargarriak txertatu dituzte programazioan.

Etxeko gazte eta txikiak aukera zabala izango da. Ohe elastikoetan ariketa egiteko aukera izango dute Txiki Jump eta Gazte Jump jardueretan.


Igeriketa ikastaroak ere izango dituzte. Mailaka egingo dira taldeak eta egunero izango dute saioa arratsaldeetan. Eta ezin ahaztu, kirol udalekuak ere badituztela. 2020. eta 2013. urte arteko haurrei zuzendutako ekimenen udako kirol

ezberdinak egingo dituzte. Astebeteko hiru txanda izango dira. Saioak goizez egingo dira, 09:00etatik 13:00era.

Helduek, berriz, gorputzeko atal ezberdinak lantzeko hainbat jarduerak izango dituzte: Body zunba, Cross Training, Kardiofit eta Indoor txirrindularitza.

Ikastaroei buruzko informazio gehiago edo izen ematea egiteko, Maialen Chourraut kiroldegiko bulegora hurbildu –astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00era eta asteazken arratsaldeetan 17:00etatik 19:00etara– edo 943-37 61 82 telefonora deitu behar dute interesa duten herritarrek. Inskripzio epea ekainaren 17an itxiko da.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Jon
Zorionak "Forever Joo(u)ng"! Marisko paella iganderako? Babak zintzilik gaude honezker! Hau da hau, zuk urteak bete, baina hala ere lanean! Ondo-ondo pasa! Etxeko tripontzien partetik.



Xabat
Zorionak goxoki zure hirugarren urtebetetzean!! ilusioz beteriko eguna eduki dezazula espero dugu. Maite zaitugu. Muxu pila familiaren partez.



Elene
Zorionak Elene!!! Ederki ospatuko dugu egun berezi hau. Izugarri maite zaitugu!!!



Aiora
Zorionak txapelduna!!! Dagoeneko 15 urte!!! Ondo pasa zure egunean, muxu pila bat famili guztiaren partetik.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 6	GIL	EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 7	GANDARIAS-URIBE	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 8	GANDARIAS-URIBE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 9	ACHA-ORBEA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 10	GIL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 11	GANDARIAS-URIBE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 12	LASA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRA

Errigorako kontserben banaketa Ttakunenean

Errigorako kideek jakitera eman dute Nafarroa hegoaldeko kortserben eskaera egin duten herritarrek maiatzaren 10ean eta 11n euren sorta jaso ahalko dutela Ttakunenean.

Banaketa ordutegiak honakoak izango dira: hilaren 10ean, 16:00etatik 19:00etara eta hilaren 11n, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

WAPI Inmolasarte
Etxea saldu edo alokatu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan. **Esperientzia handia dugu. Esku onetan zaude!**
943-53 64 81 | 629 63 18 38
Iñigo de Loloia, 2 behe. LASARTE-ORIA
info@inmolasarte.com

SALDU

Marina D'Orr urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro

ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukakatu genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

ERRENTAN EMAN

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratadun apartamentu alokagai. 60 metro karratadun lorategia du, bista paregabeak, baita igerileku komunitarioa ere. Ekainetik irailera alokagai, hamabostaldika. Nahiz izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 666 88 0917.

PARTEKATU

Neska langile bat naiz eta etxebizitza osatzeko beste bi neska arduratsu eta garbiren bila nabil. Etxea argitsu, handia da eta gela guztiak kanpo aldera ematen dute. Herri erdian dago, topo eta autobus geltokitik oso gertu. Harremanetarako zenbakia: 666 32 05 20.

Bi neska gazte gara eta pisukide bila gabiltza. Etxea Zabaleta auzoan dago, 70 m2 ditu eta alokairua hila batean 200 euro dira (gastuak aparte). Interesa baduzu deitu mesedez telefono honetara: 663935176 (Irati).

LANA

ESKARIA
Goizetan zein arratsaldetan edozein adinetako umeak

zaintzeko, ikastolara eramateko edo bertatik jasotzeko, eta behar izanez gero beraien etxeko lanetan laguntzeko eskaintzen dut neure

burua. Harremanetarako zenbakia: 644 98 03 49- Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Prest nago adineko pertsonak orduka zaintzeko edo tabernari zein sukaldari gisa aritzeko. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41. Garbitzaile lanak egiteko prest nago, orduka. Harremanetarako zenbakia: 618 81 43 63. Pertsona eskaintzen da interna modura lan egiteko. Esperientzia dut eta berahala hasteko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10. Lan bila nabil. Hoteletan garbiketari lanak egiteko, edo etxeetan. Pertsonak zainduko nituzke orduka. Esperientzia handia eta erreferentziak.

Harremanetarako zenbakia: 671 76 35 58. Adineko pertsonak zainduko nituzke. Zaintza ikastaroa egin da. Interno edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zenbakia: 676 18 84 11. Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketari... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketari. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA
Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrik emateko zein edozein

adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 644 98 03 49. Zientzia esparruko erreferentzia saio partikularrik eskaintzen ditut, DBH eta Babilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zenbakia, 697 45 97 96.

AURKUTUTAKOAK

Urrezko kate bat aurkitu nuen apirilaren 20an. Galdu duena jar dadila nirekin harremanetan: 626057411 (Maria)

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12€ (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20€ (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julien Basterra, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatazaileak:
Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Jose Lanchas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

LASARTE-ORIA Ospakizuna
Oriako Gazte Eguna antolatu du, eta "espazio publikoak" hartuko dituela iragarri. Hauxe da egitaraua: 11:00etan, hamaiketako Okendo plazan. 11:30ean, mahai ingurua Okendon, espazio publikoak okupatzeari buruz. 13:00etan, manifestazioa Okendon, gazteen espazio falta salatzen asmoz. 14:00etan, herri bazkaria Xirimiri elkartearen. Izena emateko galdetegi bat bete behar da, eta, 12 euroren truke, menu hau emango dute antolatzaileek: oilasko edo barazki paella, postrea eta edaria. 16:30ean, olinpiadak. Arratsaldean zehar, kontzertuak. Okendo plaza, 11:00etatik aurrera

LASARTE-ORIAKO GAZTE EGUNA 2022 MAIATZAK 7
GAZTEOK ESPAZIO PUBLIKOAK HARTUKO DUGU

11:00 Hamaiketako Okendon
11:30 Mahai ingurua Okendon
Espazio publikoan okupazioaren inguruan
13:00 Kontzentrazioa Okendon
Gazteok elkartzeko daukagun espazio falta salatzen
14:00 Bazkaria Xirimiri
Apunta zaitez GALDETEGIAN! 12€
16:30 Olinpiadak
Arratsaldean Kontzertuak

EDALONTZIA EKARRI!

LASARTE-ORIAKO GAZTE MUGIMENDUA

OSTIRALA

LASARTE-ORIA Zinema

El callejón de las almas perdidas filma proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek 6 euro balio dute.
Manuel Lekuona, 20:30ean.

LARUNBATA 7

LASARTE-ORIA Antzerkia

Noa uy, uy, uy! familia antzezlanaren taularatuko du Panta Rhei teatro taldeak. Sarrerek 4 euro balio dute.
Manuel Lekuona, 17:00etan.

IGANDEA 8

LASARTE-ORIA Erromeria

Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak erromeria antolatu dute Azkorte baselizan. Egitaraua: 11:00etan, meza. 12:00etatik aurrera, herri kirolak. Bien bitartean, Tirriki Tarraka eskolako lagunek girotuko dute erromeria. Azkortearen igotzen direnek indarrak berritzeko jakiak izango dituzte aukeran: salda, txorizoa edo odolkia. Edariak ere eskatu ahalko dituzte.
Azkorte, 11:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Zinema

Las aventuras de Pili ikusteko

aukera izango dute etxeko txikienek. Haurrentzako saioa ohiko ordutegian izango da, 17:00etan eta sarrerek 4 euroan eros daitezke.
Manuel Lekuona, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Igandeta zinema saioen barruan, helduentzako *En su punto* filma aukeratu dute. 19:30ean proiektatuko dute, 6 euroko sarreraren truke.
Manuel Lekuona, 19:30ean.

LARUNBATA 14

LASARTE-ORIA Antzerkia

Khea Ziather-ek *Winona & Grace* antzezlanaren ekarriko du herrira. Kultur etxeko auditorioan izango da eta sarrerek 6 euro balio dute.
Manuel Lekuona, 20:00etan.

IGANDEA 15

LASARTE-ORIA Zinema

El secreto de Vicky filma ikusteko aukera izango dute haurrek. Sarrerek 4 euro balio dute.
Manuel Lekuona, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

La ciudad perdida filma proiektatuko dute, helduentzat, kultur etxeko auditorioan. Txartelek 6 euro balio dute.
Manuel Lekuona, 19:30ean.

ASTEARTEA 17

LASARTE-ORIA Irakule Txokoa

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoko kideek Natalia Ginzburg-en *Familiako lexikoa* liburuarri buruz hitz egingo dute.
Manuel Lekuona, 18:30ean.

OSTIRALA 20

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldearen eskutik, *Alcarrás* ikusteko aukera izango dute lasarteoriarrek. Sarrerek 6 euro balio dute.
Manuel Lekuona, 20:30ean.

OSTIRALA 27

LASARTE-ORIA Irakule Txokoa

Lasarte-Oriako Muntteri AEKrekin elkarlanean, eta Korrika Kulturalaren barruan, irakurraldi bertsotua antolatu dute. Uxe Alberdi idazle eta bertsolariaren *Dendaostekoa* liburua oinarri hartuta egingo dute saioa. Idazleak bere lanaren pasarte bat irakurri eta hortik abiatuta bertsotan arituko dira Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal. Aitor Nova musikaria izango dute lagun. 19:30ean izango da, kultur etxean. Sarrerek 6 euro balio dute.
Manuel Lekuona, 20:30ean.

ZINEMA

LASARTE-ORIA**MANUELLEKUONA**

'El callejón de las almas perdidas'
Ostirala 6
20:30.

'Las aventuras de Pili'
Igandea 8
17:00.

'En su punto'
Igandea 8
19:30.

ANDOAIN**BASTERO****'Alcarrás'**

Larunbata 7
19:30, 22:00.

Igandea 8
19:30.

Astelehena 9
19:30, 22:00.

'Sonic, la película 2'
Larunbata 7
17:00.

Igandea 8
17:00.

USURBIL**URBIL**

'Animales fantásticos: los secretos de Dumbledore'
Ostirala 6
15:50.

Larunbata 7
12:00, 15:50, 21:55.

Igandea 8
12:00, 15:50, 21:55.

'Doctor Strange en el Multiverso de la locura'
Ostirala 6
16:00, 17:00, 17:30, 18:00.

'Downton Abbey: una nueva era'
Ostirala 6
15:50.

Larunbata 7
12:00, 15:50.

Igandea 8
12:00, 15:50.

18:30, 19:05, 20:05, 20:30, 21:05, 21:30, 22:10, 23:10.

Larunbata 7
12:00, 16:00, 17:00, 17:30,

18:00, 19:05, 20:05, 20:30, 21:05, 22:10, 23:10.

Igandea
12:00, 16:00, 17:00, 17:30,

18:00, 19:05, 20:05, 20:30, 21:05, 22:10, 23:10.

'El juego de las llaves'
Ostirala 6
21:20.

Larunbata 7
21:20.

Igandea 8
21:20.

'Go fish: salvemos el mar'
Ostirala 6
15:45.

Larunbata 7
12:15.

Igandea 8
12:15.

'El hombre del norte'
Ostirala 6
18:55, 22:00.

Larunbata 7
12:10, 15:50, 18:55, 22:00.

Igandea 8
12:10, 15:50, 18:55, 22:00.



LABURPENA

'En su punto'

Zuzendaria: Christopher Thompson. **Gidoia:** Fabrice Roger-Lacan, Christopher Thompson. **Argazkia:** Rémy Chevrin. **Ekoizleak:** Coproducción Francia-Bélgica; Les Films du Cap, MM Films, G Films. Distribuidora: Orange Studio Cinéma, UGC Distribution, Other Angle Pictures. **Herrialdea:** Frantzia (2021). **Iraupena:** 91 minutu. **Generoa:** Komedia erromantikoa. **Musika:** Arthur Simonini. **Aktoreak:** Geraldine Pailhas, Arnaud Ducret, Alison Wheeler, Stéphane De Groot, Jean-François Stévenin, Antoine Gouy, Elisa Ruschke, Gigi Ledron, Mahault Mollaret.

Harategi bat jasoko du herentzian

Charly moda aldizkari bateko editore burua da. Aita hiltzean, familiaren negozioa jasoko du herentzian: harategia, baina lan horretan aritzeak ez dio grin handirik sortzen eta negozioa saltzea erabakiko du. Saltzeko zorian dagoela, Martzial agertuko da; bere aitarentzat egiten zuen lan, eta

negozioaren ardura hartu nahi duela adieraziko dio, baina Charlyk beste plan batzuk ditu. Aurrez aurre jarriko ditu filmak bi pertsonaia horiek, eta ohitu egin beharko dute bata bestearekin egoteaz.

Komedia erromantikoa istorio batean murgilduko dira ikus-entzuleak.

35. URTEURRENA

Bideo TIEN 21 Lagunak

Finantziakoa neurria Garraio zerbitzua Erabiliko gailuen jasotzea Aholkularitza espezializatua Prezio onena

Etiketresna elektrikoetan adituak 

ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA

Udaberri eta urteurreneko TOP 21 eskaintzak

zatoz maiatzean!

Etiketresna elektrikoetan aukera zabalena prezio onenean!

Telebistak Garbigailuak Hozkailuak Labeak Bitrozeramikak

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943-37 31 34 | www.bideolagunak.com

txintxarri

Aste Santuko ARGAZKI LEHIAKETA

SARIAK:
 Epaimahaiarena: AVENIDA TABERNAN BI MENU
 irakurleena: ERRIGORA OTAR EDER BAT

Bozka emateko (irakurle saria)
 maiatzaren 8a arte (barne)

www.txintxarri.eus

BOZKATU

 **USURBILGO LANBIDE ESKOLA**
 CIFP USURBIL LHII

AURREMATRIKULA
 Maiatzaren 9tik 27ra

-  Administrazioa eta Kudeaketa
-  Energia eta Ura
-  Instalazioa eta Mantenua
-  Fabrikazio Mekanikoa
-  Elektrizitatea

STEAM ERASMUS + DUAL ETHAZI Lan Poltsa

 **Hartu hitzordua!!!**
 **943-36 46 00**

www.lhusurbil.eus